

LORE BATENGANAKO BIOLENTZIA

-Esalguzu, zelan duzu izena?

Ni harrituta nengoen. Ez nekien zelan erantzun; nire bizitza osoan ikusi ditudan baino kamera gehiago zeuden nire inguruan. Ordura arte ikusi nuen kamera bakarra, nire aitaren argazki-filmdun kamera izan zen. Apur batean egon nintzen ezer esan gabe eta behingoz erantzun nuen:

-Baasima dut izena, irribarretsu esan nahi du arabieraz.

-Eta esan, zelan heldu zinen gure herrialde aske eta modernora, Estatu Batuak?

-Beno...

Eta hor, hitz bakar horretan hasi zen den-dena. Oroitzapen guztiak nire burura bat-batean heldu ziren eta trabatuta zeudela ziruditen, ez ziren joaten, ezta besterik sartzen ere. Bakarrik azkenengo urteotan, gerra garaian, bizitako esperientzien oroipenak nituen buruan bueltaka.

-Ea, kontaiguzu zure istorioa -ekin zion nire aurrean zegoen elkarrizketatzaileak.

Eta hori egin nuen, nire bularra ausardiaz betez istorioa kontatzen hasi nintzen. Ez nuen fama edo aberastasuna lortzeko egin, baizik eta mundu guztiak jakin dezan bakoitzaren konfort-eremutik kanpo bizitza ez dela haiek pentsatzen duten bezain erreza.

“Jakingo duzueenez, siriarra naiz. 2000. urtean jaio nintzen Siriako Alepo hirian. Ama, aita, ahizpa eta nebarekin bizi nintzen. Oso hiri handia zen eta nahiko diruduna. Baina, oso aberatsak ez ginenez, Aleporen alde pobreak bizi ginen, kanpoaldean. Txikia nintzenez oso bizitza normala izan genuen. Egia esan, oso normalak ginen. Egunero nire nebarrebak eta ni eskolara joaten ginen, nire ama etxean geratzen zen, eta nire aita bitartean, lanera, bulegora joaten zen. Betidanik oso bakartia izan naiz, lagunak banituen, baina nahiago nuen bakarrik egon, nire buruari bueltak ematen, galderak egiten, irakurtzen, mundu osoak asmatzen... Esan dudanez, bizitza oso normala izan nuen, 2011. urtera arte.

Igandea zen, eta familia osoa azokan paseatzen geunden. Ama zeramikazko poteak saltzen zituen postu batean gelditu zen. Bat-batean, soinu zaratatsua entzun zen, ehun zaldi inguru galopan zetozela zirudien, baina kalearen erpinean begiratu nuenean, pertsonak zirela ikusi nuen. Ez ziren pertsona arruntak, denak gizonak ziren, berdez jantziak eta gorputzak armaz josiak. Militarrak ziren.

Momentu horretan sortu zen iskanbila, ordura arte Alepon izandako handiena iruditu zitzaidan. Jendea garrasika, negar egiten... eta militarrek oraindik ez zuten muskulu bakar bat ere mugitu. Bat-batean tiro bat entzun zen eta ahots grabe eta sendo bat hitz egiten hasi zen:

-Danak lurrera!

Pasillo baten antzeko zer edo zer sortu genuen, pertsonak postuen aurrean belauniko jarrita. Militarrek gure artean oinez hasi ziren... Nire neba nagusia, Akram, niri besarkatuta zegoen. Nik nire ahizpa Kala ikusi nuen, negarrez zegoen. Neu ere negarrez hasiko nintzen, baina hain beldurtuta nengoen, begietatik malko bat ere ezin zitzaidan jausi. Kala, Akram ni besarkatzen zegoen moduan besarkatu nuen. Dena isilik zegoen, baina militarren marmarrak entzuten ziren. Holako batean begirada altxatu nuen eta nire parean larruzko bota beltz eta erraldoi batzuk ikusi nituen. Oihuka hasi nintzen, baina zarata egin aurretik, nire ahizparen aurretik pasatu zen esku bat ikusi nuen, nire amarena, eta ahoa estali zidan. Begirada desesperatua bidali nion nire amari, baina berak bere atzamarra ahoan jarri zuen, isilik egoteko keinua eginez. Bat- batean, nire ama soinetatik hartu eta altxatu zuen esku bat ikusi nuen, militar batek hartu zuen. Ni jarraian altxatu nintzen nire ama laguntzeko:

-Ama!

Baina, nebak hanka batetik heldu zidan eta lurrera bota ninduen. Aitarengan pentsatu nuen jarraian, eta begiratu egin nion. Negarrez zegoen, baina jausteko zorian zeuden malkoak sikatzen zituen. Ondo ulertzen dut jendea, eta badakit ez zuela nahi guk bera negarrez ikustea, gauza oso gogorra delako zure gurasoren bat, bizitza osoko zutabe nagusienetako bat, negarrez ikustea. Dena den, eztarrian korapilo erraldoi bat sortu zitzaidan, eta hor bai, negarrez hasi nintzen. Ez nuen begirada berriro altxatu zarata entzun nuen arte.

Jendea hitz egiten ari zen, beraz, militarrek joanak ziren. Baina, nire ezkerretara begiratzean, nire aita eta nire ahizparen artean hutsune bat ikusi nuen. Militarrek nire ama eraman zuten. Nire aitarengana abiatu nintzen eta, negarrez, hitz egiten hasi ginen:

-Aita, non dago ama?

Aitak begirada galdua zuen, eta ez zidan erantzun.

-Aita! Non dago ama?

Eta berak, ezer esan gabe, Kala, Akram eta ni, besoen artean hartu gintuen.

Azokatik etxerainoko bidean ez zuen inork ezer esan. Kanean marmarrak entzuten ziren, baina ez zen azoka egunetako betiko iskanbila. Jendea hurbiltzen zitzaigun esanez: "ondo al zaudete?" edo "sentitzen dut", baina gure aitak ez zuenez ezer esaten; ez zenez ezta gelditu ere egiten, ez genien ezer erantzuten. Etxera heldu ginen eta aitak, bakoitzari muxu bat eman zigun bekokian. Jarraian, oheratu egin zen. Goizeko ordu bata ziren eta Akramek eta nik arroza prestatu genuen. Aitari platertxo bat eraman nion, berak bere eskumako besoa sorbaldaren gainean jarri zidan eta bere alboan etzan ninduen. Hor egon ginen denbora luze batean. Tarte horretan denetarik pentsatzeko astia izan nuen. Baina halako batean, denbora luze horretan ez nuela zarata bat ere entzun ohartu nintzen. Eta azkenean, pasillora joan eta ozenki esan nuen:

-Ez dakit zer demontre pasatu den azokan! Ez dakit nora eraman duten ama ezta bizirik dagoen ala ez! Baina argi dago ezin garela bizitza osorako horrela geratu!- nire ezkerreko eskuan neukan erlojuari begiratu nion- Hiru ordu pasatu dira etxera heldu garenetik, isiltasunez betetako hiru ordu besterik ez dira izan, hiru ordu pentsatzeko eta gure buruekin bakarrik egoteko! Hiru ordu horiek pasatu dira, eta hitz egiteko ordua heldu da. Beraz, espabilatu eta etorri denak egongelara.

Egongelako lurrean eseri nintzen. Akram bakarrik agertu zen eta nire alboan eseri zen. Minutu batzuk pasa ondoren, aita ohetik altxatu zela entzun nuen. Bera joan zen Kalarengana, beraz, nik ez nuen altxatzeko beharrik izan. Denak korroan eserita geundenean, Akram hitz egiten hasi zen:

-Baasimak arrazoia du, ezin gara besoak gurutzatuta geratu. Ama lagundu egin behar dugu.

-Bai, arrazoia duzue- esan zuen aitak-, baina militarrek dira. Ezin dugu beraien aurka ezer egin. Indartsuak eta asko dira, eta gainera, milaka arma dituzte. Guk, gehien jota, sukaldeko sardexkak eta labanak ditugu...

Isiltasuna sortu zen... Ez nekien zer esan. Aitarekin ados nengoen, ama salbatu behar genuen, baina ezin ginen militarren aurka joan...

Etxeko telefonoak jo zuen, eta aitak hartu zuen:

-Bai, esan?

-Shaid? Zu zara?

-Bai, Faris, ni naiz.- nire osaba zen, nire amaren neba.- Badakizu jada, ezta?

-Bai, horregatik nabil deika. Nire arreba salbatu egin behar dugu!

-Badakit! Baina zelan?

-Ideia bat daukat: gauz joango gara. Gutxi gorabehera badakit non izango duten preso, base militar denak antzerakoak direlako.- nire osabak asko zekien horri buruz, soldaduentzat lan egin zuelako orain dela sei hilabete kantzerra diagnostikatu zioten arte.- Armak ilegalki saltzen dituen gizon bat ezagutzen dut, berak emango dizkigu beharrezkoak diren tresnak eta nire arreba salbatuko dugu. Benetan esaten dizut, ez da hain saila izango.

-Beno, ados. Etorri nahi duzunean nire etxera.

Telefonoa moztu eta guri hitz egin zigun:

-Dena entzun duzue, ezta?

-Bai... -esan genuen Akramek eta nik. Kala oraindik isilik zegoen.

-Lasai egon, zuen osaba oso gizon fidakorra da, ikusten duzunez nire bizitza bere eskuetan jarri dut...

-Aita...- ahots ahul bat entzun zen. Nire ahizpa zen.- Kontuz ibili...

-Bai, lasai egon, bueltatuko naizela zin egiten dizuet.

Egun bereko arratsaldeko zazpi eta erdietan nire osaba etxeko atean agertu zen. Agurtu egin gintuen eta bakoitzari muxu bat eman ondoren, joan egin ziren. Joan baino lehen, nire osabaren atzean beste bi pertsona ikusi nituen, laguntzeko prest zeudenak.

Hortik aurrera Kalak, Akramek eta nik denbora guztia eman genuen lurreko mantan etzanda, eta gauza askotan pentsatu nuen: " eta aita bueltatzen ez bada? zergatik

eraman dute ama? zer egin dugu Alepoko biztanleek eraso hau jasotzeko? mundu osoan berdina gertatzen ari zen?"... eta abar, eta abar.

Gaueko hamarrak izango ziren bat-batean txistu bat entzun zenean. Ez zen txoririk, ezta txirularik ere. Akram asko larritu zen eta nire ahizpa eta ni eskuetatik hartu eta nire gurasoen ohe azpian sartu gintuen. Zarata ikaragarri eta itzela entzun zen eta lurrak dardar egin zuen. Pasatu zenean, ez ginen ohe azpitik irten, baina Akrami galdetu nion:

-Zer izan da hori?

-Bonba bat.- erantzun zuen oso serio.

-Goazen ikusten! Zaurituak egon daitezke!

-Ez! Eskolan erakutsi ziguten horrelako kasuetan zer egin behar den, eta hoberena hemen geratzea izango da.

Momentu horretan ez nuen ulertzen zergatik erakusten zuten eskolan bonba kasuetan zer egin behar den. Orain bai. Siria betidanik izan da leku estrategiko bat: bi kontinenteen artean, itsasoaren alboan, petrolio... eta horregatik herrialde askok eta askok Siria gobernatu nahi dute, eta horrek gerrak sortzen ditu. Aspertu egin nintzen, eta ohe azpitik irten eta leihora hurbildu nintzen. Akram eta Kala nire atzetik etorri ziren.

-Begira!- esan zuen Kalak- Sutan dago!

-Gure eskola da! - esan zuen Akramek.

-Eskerrak ordu honetan bota dutela, bestela jendea egon zitekeen.

-Hobeto, bihar eskolarik ez!- esan zuen Akramek momentuari seriotasuna kentzeko.

Afaldu eta "lotara" joan ginen. Egongelako mantan etzan ginen berriz ere eta, oraingoan, gau osoa egon ginen pentsatzen. Ez denon artean, baizik eta bakoitza bere buruarekin.

Hurrengo goizean aita atetik sartzen ikusi nuen. Bera bakarrik zetorren, ez ama, ez osaba ezta beste bi gizonak ere. Bera bakarrik zegoen. Sartu eta jarraian esan zuen:

-Egin maletak, Siriatik bagoaz! Ez dut galderarik nahi, ezta kexarik entzun nahi ere. Gaur arratsaldeko bostetan irtengo den Damaskorako autobusa hartuko dugu. Asko ikaratu ninduen, kasu egin nion, baita Akramek eta Kalak ere. Arratsaldeko bostetan autobus geltokian geunden. Autobusean sartu ginen eta aitak bidaiarako janaria erostera joango zela esan zigun. Aita erosten zegoela autobusa martxan jarri zen. Aita autobusa joan baino lehen heldu zen, baina ez zen igotzen.

-Aita, azkar! Igo zaitez!

Ez zuen ezer esan. Autobusa martxan jarri zen eta gure aita ez zen igo:

-Baasima, Akram, Kala! Zuen maletan eskutitz bat sartu dut, hor informazio guztia duzue! Irakurri arretaz, mesedez! Eta nirekin ulergarriak izan, nire seme-alabak zarete eta! -hori esaten zuen bitartean eskua astindu zuen, agur esanez, autobusa urruntzen ari zen bitartean. Nire begietatik gelditu ezin nituen negar-malkoak jausten hasi ziren. Malko bakoitzeko, nire bihotzeko zati bat jausten zitzaidala sentitzen nuen, guztiz apurtuta,

hutsik. Nire eserlekuan eseri nintzen eta Akram eta Kalarekin batera maleta zabaldu eta eskutitza irakurtzen hasi ginen:

Mesedez, egin esaten dizuedan guztia. Informazio guztia zuen osabak eman zidan, bere bizitza nireagatik eman aurretik. Damaskorako bidean zoazte. Han kostaldera doan tren bat hartu beharko duzue, eta ondoren, Ziprera eramango zaituzten txalupa hartuko duzue (dena ordainduta dago, ticket guztiak maletan daude). Han zaudetenean, beste itsasontzi bat hartu beharko duzue Atenaseraino. Atenas lurralde europarra da, esan behar duzuen bakarria zuen gurasoak hil egin direla izango da, horrela, zuen kargu egingo dira eta ahal den neurrian zainduko zaituztete. Ez naiz zuekin joan ez geneukalako behar beste diru. Nire berri laster izango duzue, baina heldu eta jarraian, mesedez, zuen helbidearekin eskutitz bat bidali. Laster egongo gara. Zaindu batak bestea eta jakin asko maite zaituztedala.

Horretaz aparte beste nota txiki bat zegoen:

Zuen ama ezin izan nuen salbatu, eta nire bihotzean betiko eramango dut zama hor, bere heriotza nire errua izan dela sentituz.

Negarrez hasi ginen hirurok. Autobuseko jarlekuak binaka zeuden, ni eta Kala batera gindoazen eta gure aurrean Akram zihoan bakarrik. Hamah-era heldu ginen, ia bide erdia egin genuen eta autobusa gasolina hartzeko gelditu zen. Nire ahizpa leihoaren kontra lo zegoen. Nik aitak utzitako eskutitzak eskuetan nituen irakurri genituenetik. Akramek buelta eman eta nire sorbalda ukitu zuen. Horrek ni ilargitik baxatzea eragin zuen:

-Aitak esan duen guztia egin behar dugu. 136 kilometro izan ditut pentsatzeko eta aitak arrazoia du. Hori guztia egin behar dugu, bestela orain arte izandako heriotza guztiak alferrik izango dira.

-Gure amaren, osabaren eta beste bi gizonen heriotzak justifikatzen ari zara?!

-Ez! Gerra honen arrazoia ez dakit, baina seguru nago ez duela hainbeste merezi! Baina horregatik aitak esan duena egin behar dugu, gure bizitzak ama eta osabarenarekin ez uzteko!

Ez nuen ezer esan, esan nuenari buruz pentsatzen geratu nintzen; azkenik askatu nuen:

-Barkatu, ez nuen hori esan nahi, ez dut horrelakorik pentsatu ere egin ...

-Lasai egon ...

Gure bide luzea jarraitu genuen Damaskoraino. Heldu eta jarraian tren geltokira joan ginen. Han kostalderako hurrengo trena noiz izango zen galdetu genuen, baina hurrengo trena hilabete barru pasatuko zela esan zigun tren geltokiko langileak. Ez genuen beste aukerarik, eta hilabete bat itxaron genuen. Damasko hiri "lasaia" zen, gerra garaian geundela jakinda. Alepon, guk dakigunez, bi egunetan iskanbila bat, bahiketa bat, bonba bat eta lau heriotza baino gehiago egon ziren. Damaskon, hilabete eman genuen eta hiru bonba besterik ez zuten bota, heriotzak egon ziren, bai, baina ez Alepon beste, albistegietan esaten omen zutenaren arabera. Hilabete hori zubi azpian, ONGen postuetan edo eraikuntza publikoetan bizi izan ginen. Azkenik hilabetea pasatu zen, eta

tren geltokira bueltatu ginen, hilabetean zapaldu ez genuen horretara. Gure txartelak eman genituen eta trenera abiatu ginen. Askotan moduan, berandu heldu ginen. Trena irteteko prest zegoen; Kala nire aurrean zihoan eta Akram atzean. Korrika hasi behar izan ginen trenera garaiz heltzeko eta sartu baino lehen Kala gelditu egin zen. Nik atzetik bultza egiten nion, baina berak alde batera egin zuen eta pasatzeko keinua egin zidan lurrera begiratuz.

-Zertan zabilta?

-Ez noa -esan zidan begietara begira.

-Zelan ez zatozela!- esan zuen Akramek, haserre tonu batekin.

-Ez noa. Hilabete honetan gauza asko ikusi ditut, gauza ikaragarriak. Baina, momentu hauetan, momentu txarretan, ikusten da pertsona bakoitzaren benetako izaera, eta nire izaerak besteak lagundu behar ditudala esaten dit.

-Zer esan nahi duzu?- galdetu nion oraindik harrituta.

-Hemen geratuko naiz, Damaskon. ONGetako lagunekin joango naiz. Han ondo egongo naiz. Medikuntza ikasiko dut beraiekin eta ahalik eta gehien lagunduko dut. Ezin nauzue gelditu, denbora asko egon naiz honi buruz pentsatzen eta oso argi dut egin nahi dudana. Nebak eta biok begietara begiratu genion elkarri, eta pentsamendua irakurri bagenu bezala, batera esan genuen:

-Ondo da!

-Baina, kontuz ibili - Akramek Kala besarkatu zuen.- Askok maite zaitut.

Jarraian trena joateko zorian zegoela abisatzen zuen txirrinak jo zuten. Akramek atzera begiratu zuen, eta begirada tristearekin trenera igo zen. Ni ahizparekin geratu nintzen.

-Oso ausarta zara, benetan -esan nuen negarrari eutsiz eta eztarrian korapiloa nuela.- Ama zutaz harro egongo zen.

-Horregatik erabaki nuen erabaki dudana egitea. Amak hori egingo zuela badakidalako

-esan zidan erdi irribarrez erdi negarrez. Kala besarkatu nuen.

-Zaindu! Ez nuen nire burua barkatuko zerbait pasatuko balitzaizu. Heldu eta jarraian ONG-ko helbidera eskutitz bat bidaliko dizut. Maite zaitut. Eta Kalari ezer esateko denbora eman gabe trenera igo nintzen. Nebaren ondoan eseri nintzen eta trena abiatu zenean Kala agurtu nuen. Bidaia laburra izan zen eta ez dut asko gogoratzen erdi lokartua egon nintzelako ibilbide guztia. Bayrut-era heldu ginenean, egoera pentsatutakoa baino txarragoa zela konturatu ginen. Eraikuntzak apurtuta zeuden, sua eta kea leku guztietatik, hildako gorpuak... Portura abiatu ginen arineketan. Ez genuen ezer ikusi, baina Akramek portuaren atzealdera joateko esan zuen.

-Hori da gure itsasontzia! -esan zuen Akramek poz-pozik.

Niri oso arraroa iruditu zitzaidan itsasontzia hor egotea.

-Zergatik dago portuaren atzealdean gure itsasontzia?

-Ea ... ez nizun ezer esan nahi, baina ... itsasontzi hau ilegala da. Zipreraino joango gara ilegalki, eta geroago Atenaseraino.

-Zer? Ezin dugu hori egin!

-Baina, aitak nahi zuena da. Berak bere bizitza arriskuan jarri du gurea salbatzeko!

Ez nuen ezer esan, baina Akramek ondo ulertu zuen ados nengoela. Ez geneukan beste aukerarik, eta itsasontzira igo ginen.

Itsasontzian sartu eta bidaia oso ondo joan zen, suertez. Bero handia izan genuen, baina gauak oso atseginak izan ziren, itsasoaren soinu erlaxatuarekin. Hala ere, oso beldurtuta joan ginen bidaia osoan, Akramek ez erakutsi arren.

Atenasen geundela, hilabetera, laguntza eskaini eta gobernuaren zaintzan jarri gintuzten. Arraroa izan zen, baina adopzioan jarri gintuzten neba eta biok adin txikikoak ginelako. Ia urtebete egon ginen adopzio zentroan, Estatu Batuetako familia batek hartu gintuen arte. Eta ez zen egun bat ere izan nire familiaz oroitzen ez nintzena. Eta horrela heldu ginen hona.”

-Woao! Istorio harrigarria!

Nik ez nuen ezer esan, irribarre faltsu baten keinua besterik ez nuen egin. Baina barrutik prest nengoen elkarrizketa egiten ari zitzaidan mutilari gauza batzuk esateko. Hark istorio harrigarri moduan ikusi zuen kontatu nuena, berak pelikula bat legez ikusi zuelako. Baina nik eta nire familiak lehenengo pertsona bizi izan genuen eta ziurtatzen dizuet harrigarria baino penagarria dela holako gauzak bizitzea.

Ez da pelikula bat, ez da istorio bat, bizitza da eta bizitza galtzen baduzu ez duzu aukera gehiagorik izango. Beraz, ez hartu beste baten bizitza urrutiko gauza balitz moduan, zeuri ere edonoiz pasatu dakizukeelako.